Replica el Alcalde que no comparte las manifestaciones de la portavoz de GUK ya que en su interveción se refería al PP al efecto de las enmiendas en los ingresos mientras que la intervención de GUK estaba constantemente fuera del tema. Resalta también en este punto como cuando la tramitación del presupuesto alguna enmienda de GUK no se admitió, así como de la otros grupos tampoco, GUK fue el único grupo que planteaba que la inadmisión se hacía por criterios políticos en vez de técnicos, descalificando por ello el trabajo y la profesionalidad de los técnicos municipales. Recuerda que la reunión previa al Pleno se ha realizado tras conocer los informes técnicos de unas enmiendas presentadas la víspera. Reconoce en el fondo la impotencia que puede surgir en GUk pero lo que le sugiere es que presenten las enmiendas con mayor antelación para posibilitar las correcciones que fueran necesarias.

Jarraian Ciudadanosek aurkeztutako zuzenketak bozkatu dira; honako hauek izan dira emaitzak:

A continuación se procede a votar las enmiendas presentadas por Ciudadanos con el siguiente resultado:

17.450 erregistro zenbakidun zuzenketa ez da onartu; aldeko boto 1 jaso du, (Ciudadanos), aurkako 14 boto (EAJ, EH Bildu, PSE-EE) eta 9 abstentzio (PP, GUK).

Enmienda registrada con el número 17.450 es rechazada al obtener 1 voto a favor, Ciudadanos; 14 votos en contra, PNV, EH Bildu, PSE-EE; 9 abstenciones, PP, GUK.

1 zenbakia duen zuzenketa,

Enmienda que figura como número 1,

monumentu multzoaren hobariei buruzkoa, ez da onartu; aldeko boto 1 jaso du (Ciudadanos), aurkako 14 boto (EAJ, EH Bildu, PSE-EE) eta 9 abstentzio (PP, GUK).

relativa a bonificaciones al conjunto monumental, es rechazada al obtener 1 voto a favor, Ciudadanos; 14 votos en contra, PNV, EH Bildu, PSE-EE; 9 abstenciones, PP, GUK.

2 erregistro-zenbakiko zuzenketa, eguzki-energiaren hobariei buruzkoa, ez da onartu; aldeko 6 boto jaso ditu, (PP, Ciudadanos), aurkako 14 boto (EAJ, EH Bildu, PSE-EE) eta 4 abstentzio (GUK).

Enmienda identificada como número 2, relativa a bonificaciones por energía solar, es rechazada al obtener 6 votos a favor, PP, Ciudadanos; 14 votos en contra, PNV, EH Bildu, PSE-EE; 4 abstenciones, GUK.

3 zenbakia duen zuzenketa, aparkalekuen hobariei buruzkoa, ez da onartu; aldeko boto 1 jaso du, (Ciudadanos), aurkako 14 boto (EAJ, EH Bildu, PSE-EE) eta 9 abstentzio (PP, GUK).

Enmienda que figura como número 3, relativa a bonificaciones en aparcamientos, es rechazada al obtener 1 voto a favor, Ciudadanos; 14 votos en contra, PNV, EH Bildu, PSE-EE; 9 abstenciones, PP, GUK.

Jarraian, proposamena eztabaidatu da.

A continuación procede a debatirse la propuesta.

Eduardo Andrade jaunak adierazi du "katastrazoa" Getxora heldu dela eta bertan jarraituko duela, ez baita zuzenketa bakar bat ere onartu; EH Bilduk gobernu-taldea babestu du. Goizean gobernu-taldeak PPrekin Algortako trafikoari eta aparkalekuei buruzko erabakia egin duela jakinarazi du. Auzotarrentzat gai garrantzitsua eta ona dela uste dutelako egin dute erabakia, proposamenak auzotarrentzat txarrak iruditzen zaizkienean, ordea, horien aurka egiten dute, oraingo kasuan bezala. Proposamenak OHZ oro har igotzea dakar. Alderdi politikoen erabakiagatik ez dela orain arte katastroa aldatu gogorazi du. Katastroa eta horren egungo balioak, batez beste, % 4,72 handitu direla nabarmendu du, eta horri EH Bilduk planteatutako % 0,65 gehitu zaiola. Proposamenak Portu Zaharreko kuota % 12,8 igoko du, eta bestelako igoerak zehaztu ditu beste eremu batzuetan. Igoerak, handiak ez

Eduardo Andrade indica que el "catastrazo" ha llegado a Getxo y para quedarse ya que ninguna enmienda ha sido aceptada siendo todas rechazadas con el apoyo de EH Bildu al equipo de gobierno. Indica que el PP a la mañana ha llegado a un acuerdo con el equipo de gobierno sobre el tráfico y aparcamientos en Algorta porque creían que era un tema importante y bueno para los vecinos y que cuando las propuestas son malas como en este caso para la vecindad se oponen. La propuesta supone una subida generalizada del IBI. Recuerda que el Catastro no se ha modificado hasta ahora por decisión de los partidos políticos. Insiste en que el Catastro y sus valores actuales suponen una revalorización media del 4,72% a lo cual se le incorpora un incremento del 0,65% planteado por EH Bildu. La propuesta supone un incremento de cuota en el Puerto Viejo de un 12,8%,

izan arren, beste igoerei gehitu zaizkiela adierazi du, eta horrek azkenean zama handia ezarri diela herritarrei. Bestalde, familia ugarientzako diru-laguntzak kendu dituztela gogoratu du. Egoera horren aurrean, gobernu-taldeak familia ugarientzako zenbait laguntza sortuko zituela adierazi zuen, baina ez da halakorik gauzatu. Era berean, aurrekontuan jaso ziren OHZren igoera leuntzeko diru-laguntzak ere ez dira gauzatu. Horregatik guztiagatik, aurka bozkatuko dute.

así como detalla incrementos en otras zonas. Indica que los incrementos, aunque no sean de grandes cuantías, se acumulan con otras subidas y todo ello supone al final una carga para la ciudadanía. Recuerda también que se han quitado las ayudas a familias numeroas y que ante esta situación cuando el equipo de gobierno manifestó que iba a generar una línea de subvenciones a las familias numerosas, en la práctica no tuvo ningún resultado. Tampoco se han iniciado las líneas de subvenciones que se preveían en presupuesto para paliar la subida del IBI y que por todo ello votarán en contra.

Inazio Uriarte jaunak OHZk mekanismo konplexua duela adierazi du, hala ere, gutxi gorabehera ordainagirien erdiak behera egingo duela azpimarratu du eta beste erdiak mantendu edo igo egingo duela, funtsean, katastroaren berrikusketaren ondorioz. Amaitzeko, herritar guztiek kuota berria eta horren zenbatekoa indarrean sartu aurretik ezagutuko dutela azaldu du. Era berean, alegazioak egin ahal izango dituzte horren aurrean.

Inazio Uriarte manifiesta que el IBI tiene una mecánica compleja pero reitera que aproximadamente la mitad de los recibos bajarán y la otra mitad se mantendrá o subirá, algo como consecuencia básicamente de la revisión catastral. Finaliza indicando que todos los vecinos van a conocer antes de la entrada en vigor la nueva cuota y su cuantía y podrán alegar frente a la misma.

Susana de Cosek aretoa utzi du.

Sale del salón Susana de Cos.

Ibon Rodríguez jaunak adierazi du EH Bilduk ez duela proposamen hau atsegin eta ordenantza-proposamena dagoeneko zergari buruzko foru arauak mugatu zuela errekarguei eta hobariei dagokienez. Gogorazi du aurrekontuan diru-laguntzetarako hainbat ildori eta hutsik dauden etxebizitzen errolda egiteari buruzko erabakiak erdietsi zirela. Emandako hitzaren balioa berrezarri beharra dagoela uste du, eta horregatik, EH Bilduk erabakitakoa betetzeko konpromisoa hartu du,

Ibon Rodríguez indica que esta propuesta no es la que le gustaría a EH Bildu y que la propuesta de ordenanza viene ya limitada por la Norma Foral del impuesto en lo relativo a recargos y bonificaciones. Recuerda que en el presupuesto se llegó a acuerdos en distintas líneas subvencionales y también en la realización del censo de viviendas vacías. Cree que hay que revalorizar la palabra dada y por ello EH Bildu se compromete a cumplir lo acordado, que tuvo reflejo en el

aurrekontuak eta hartutako konpromisoek agerian jarri duten bezala.

presupuesto y en los compromisos adquiridos.

Santiago Sainz jaunak nabarmendu du osoko bilkuran aurkeztutakoa bidezko proposamena zela eta diru-sarrerak oro har bermatzen zituela, beraz, onartu ez izana sentitzen du. Begirunea eskatu dio Alderdi Popularrari: besteen zuzenketak kritikatu ditu baina bereak OHZri buruzko Foru Arauak jaso zituen hobarien kopia txarra baino ez dira, eta zehaztapen urrikoak dira, zuzenbidean lizentziadunak diren bi zinegotzi liberatu badituzte ere. Bide batez, gogoratu dio aurrekontua izapidetzean, haien zuzenketa askok ez zutela galbahe teknikoa gainditu.

Santiago Sainz insiste en que han traído al Pleno una propuesta razonable que garantizaba el ingreso global y lamenta que no se haya asumido. Al Partido Popular le pide respeto ya que critica las enmiendas de otros cuando sus enmiendas son una mala copia de las bonificaciones que recoge la Norma Foral del IBI y que son enmiendas con poca concreción y eso que tienen dos concejales liberados, licenciados en derecho y le recuerda que cuando la tramitación del presupuesto muchas de sus enmiendas no superaron la criba técnica.

Eduardo Andrade jaunak adierazi du gobernu-taldeak ez duela aplikatu zitekeen gutxieneko tasa aukeratu eta eragin handiena etxe zaharrenengan izango duela, hau da, nagusiki, Portu Zaharrean, Salsidun, Boluen, Konporten eta abarretan. Eremu horietako auzotarrek baliabide gutxi dituzte. Azkenik, ordainagiriak bidaltzen dituztenean, herritarrek igoeren nabarmentasuna antzemango dutela adierazi du.

Eduardo Andrade indica que el equipo de gobierno no ha optado por aplicar el mínimo tipo posible y que va a tener el mayor efectos en aquellas casas que son las más antiguas, que son básicamente en el Puerto Viejo, Salsidu, Bolúe, Konporte, etc., en zonas con vecinos de recursos limitados. Finaliza indicando que cuando lleguen los recibos la gente va a ver la importancia de los incrementos.

Proposamena bozkatu da eta emaitza hau izan da: aldeko 11 boto (EAJ, PSE-EE), kontrako 8 (PP, GUK, Ciudadanos) eta 3 abstentzio (EH Bildu).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 8 votos en contra, PP, GUK, Ciudadanos; 3 abstenciones, EH Bildu.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

1.- Behin-behinean onestea, ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen

1º.- Aprobar con carácter provisional la Ordenanza Fiscal Reguladora del

duen zerga-ordenantza; espedienteak aldean dauzkan testuetan dagoen bezala geratuko da idatzita.

Impuesto sobre Bienes Inmuebles, que queda redactada en los términos que se contienen en los textos incorporados al expediente.

2.- Aipatutako testua behin betiko onesten denean, aldatutako testu horrek ondorioak izango ditu 2017ko urtarrilaren 1etik aurreranean, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoa betez.

2º.- Dicho texto, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos a partir del 1 de enero de 2017 en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 15 y 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales.

3.- Abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau, ukitutako ordenantza fiskalaren bertsio berriarekin batera, jendaurrean erakutsiko da udaletxe honetako iragarki oholean, 30 egun naturalez. Horrela, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ahal izango dituzte.

3º.- De conformidad con lo establecido en el citado art. 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, el presente acuerdo provisional, junto con la nueva redacción de la Ordenanza Fiscal afectada, se expondrá al público en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

4.- Jendaurreko erakusketa hori BAOan iragarriko da. Iragarkia aipatutako aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da epea zenbatzen. Gainera, jendaurrean erakusteko iragarkiak argitaratuko dira egunkaririk irakurrienetako batean.

4º.- Dicha exposición al público se anunciará en el B.O.B y comenzará a contar su plazo a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la publicación del correspondiente anuncio en el referido boletín, publicándose además anuncios de la exposición pública en uno de los diarios de mayor difusión.

Susana de Cos eta Arantza Gutiérrez aretoan sartu dira.

Se incorporan a la sesión Susana de Cos y Arantza Gutiérrez.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA**

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE**

**147.- HAPO ALDATZEKO BEHIN-BEHINEAN ONARTU, SARRIKOBASOKO 31.3 EGIKARITZE-UNITATEAN ETA**

**147.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PGOU EN EL ÁMBITO DE LA UNIDAD DE EJECUCIÓN 31.3-**

**SARRIKOBASO KALEKO 19. ZENBAKIAN, 56-"KATEA" IZENEKO BANAKETA AREA BERRIA SORTUZ**

Proposamena irakurri ondoren, Joseba Arregui jaunak hartu du hitza eta proposamenak Algortako erdigunean dagoen Sarrikobasoko ingurunea birsortzea xede duela adierazi du. Indarrean dagoen planak ez du gai hori bermatzen. Proposamenak ezarritakoaren arabera, bi bloke egongo dira, bat etxebizitza libretarako, 30 bat etxebizitzakoa, eta beste bat babeseko etxebizitzetarako, 28 bat etxebizitzakoa.

Iñaki Gamero jaunak aditzera eman du PPk proposamen hori babestuko duela horren atzean pertsonak daudelako, eremua egun Algortako erdigunean dagoelako eta horietan etxe batzuk egoera txarrean daudelako eta horrek eragin negatiboa duelako egoiliarrengan eta auzoan. Eremu hori birsortzeko erabaki politikoa eskatu duten auzotarren iritziak entzun dituzte. Aldatu beharreko HAPOn aparkaleku bat jaso zela gogorazi du eta Alderdi Popularrak beti defendatu izan duela Algortan dagoen aparkalekuetarako beharra. Horregatik erabakia egin dute gobernu-taldearekin Gainza plazan aparkalekua jartzeko, proposamenak ekarri duen aparkalekuen galera konpentsatzeko.

Arantza Gutiérrez bere parte hartzeari ekin dio eta, lehenengo eta behin, UPH / EHUn oso modu desberdinean lan egiten dela adierazi du. Horretan, posizio erabat desberdina duen jendeak proiektuak adosten ditu eta elkarlanean aritzea ahalbidetzen du; udalean, aldiz, gutxitan gertatu ohi da hori. Alderdi

**"SARRIKOBASO" Y Nº 19 DE LA CALLE SARRIKOBASO (CREACION NUEVA ÁREA DE REPARTO: Nº 56 – KATEA (LA CADENA).**

Tras dar lectura a la propuesta interviene Joseba Arregui indicando que la propuesta busca hacer posible la regeneración de la zona de Sarrikobaso en el centro de Algorta, cuestión que no garantíza el plan vigente. De conformidad con la propuesta se ubican dos bloques, uno de ellos destinado a vivienda libre, que acogerá en torno a 30 viviendas y otro destinado a vivienda protegida que acogerá en torno a 28 viviendas.

Iñaki Gamero manifiesta que el PP va a apoyar la propuesta ya que tras la misma existen personas, que la zona actual está en el centro de Algorta y en ellas hay unas casas en situación deficiente que afectan negativamente a los residentes y vecindario. Han escuchado las opiniones vecinales que instan al acuerdo político para regenerar dicha zona. Recuerda que en el PGOU a modificar figuraba un aparcamiento y el Partido Popular siempre ha defendido la necesidad de aparcamientos en Algorta y que por eso han llegado a un acuerdo con el equipo de gobierno para ubicar un aparcamiento en la plaza de Gainza, lo que compensa la pérdida de aparcamientos que se deriva de la propuesta.

Arantza Gutiérrez inicia su intervención indicando que existe una gran diferencia en cómo se desarrolla el trabajo en la EHU-UPV, donde se llega a acuerdos en proyectos por gentes de muchas posiciones absolutamente diferentes y posibilitan trabajar conjuntamente, en tanto que en el

Popularrari jakinarazi dio proposamen hau aspalditik dagoela udaletxean, baina erabakia hauteskundeak egin arte atzeratu dela, antza, lehenago gauzatzea ezinezkoa zelako. Haren ustez, proposamena, nagusiki, gobernu-taldearekin Algortako aparkalekuei buruz egin duten erabakiagatik babestu dute. Ez du zalantzan jartzen, ordea, horren onura; izan ere, auzotar eta jabe askok hori eskatu dute. Hori dela eta, orain arte HAPOren inguruan mantendu duten jarrera aldatuko dute; aldaketa zehatzik ez onestea, alegia, inolako berrikuspenik egin barik. Oraingoan, abstenitu egingo dira. Gogora ekarri du aurreko legealdian berrikuspena eta lantaldea abiarazi zirela eta horixe dela jarraitu beharreko bidea, baina uste du gobernu-taldeak ez duela horri ekiteko asmorik eta atzeratzen ari dela. Azken Hirigintza Batzordean, idazle-taldea kontratatzeko plegu berriak planteatu direla adierazi du. Duela urtebete ezaguna zen ordea, aurreko kontratua bukatzear zegoela; urtebete galdu da, beraz. Amaitzeko, proposameneko zenbait alderdik ez dituztela konbentzitzen adierazi du eta, hori dela eta, salbuespen bezala, abstenituko direla.

ayuntamiento esto se da muy pocas veces. Indica al Partido Popular que esta propuesta lleva mucho tiempo en el ayuntamiento y que el acuerdo se ha trasladado a después de las elecciones porque, al parecer, antes no era posible. Cree que apoyan la propuesta fudamentalmente en base al acuerdo al que han llegado con el equipo de gobierno respecto a los aparcamientos en Algorta, que no duda que pueda ser positivo como también la propuesta ha sido solicitada por muchos vecinos y propietarios. Por esas cuestiones se van a abstener cambiando una postura que hasta ahora venían manteniendo que era negarse a aprobar cualquier modificación puntual del PGOU sin proceder a la revisión del mismo. Recuerda que en la legislatura pasada se puso en marcha la revisión y el Lantalde y ese es el camino a seguir pero cree que el equipo de gobierno no tiene intención de abordar este proyecto y lo está retrasando. Indica que en la última comisión de Urbanismo se han planteado unos nuevos pliegos para contratar un equipo redactor, cuando se conoce desde hace un año que finalizaba el contrato anterior, con lo cual se ha perdido un año. Finaliza indicando que hay cuestiones de la propuesta que no les convencen, por lo que se van a abstener de manera excepcional.

Enrique Prada jaunak adierazi du GUKek eremu horretako auzotarren egoera eta premiak ulertzen dituela; hortaz, ez baldin bada ezer egin, GUKek ez du erantzukizunik. Gizakiak diren aldetik pozik daude, baina, koherentziari dagokionez, ezin dute zuzenketa hori babestu zeren eta, horren bitartez, iraungi dela uste duten HAPO finkatzen laguntzen da. Horrelako jarduketek iruzur egiten

Enrique Prada manifiesta que GUK comprende la situación y las urgencias de los vecinos de la zona y si nada se ha hecho no ha sido responsabilidad de GUK. Desde el lado humano se alegran pero desde la coherencia no pueden apoyar ya que con esta revisión se está avanzando en el afianzamiento del actual PGOU que consideran caduco. Estas actuaciones suponen un fraude al proceso de participación ciudadana en

diote herritarrek Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean parte hartzeko prozesuari. Parte-hartzerik gabeko jarduketa horiek berrikuspen-prozedura oztopatzen dute. Gainera, ez dute igarri horretarako interesik gobernu-taldearen partetik.

la revisión del Plan General de Ordenación Urbana. Con estas actuaciones sin ningún tipo de participación se obstaculiza el proceso de revisión en el que no ven ningún interés por el equipo de gobierno.

GUK eta EH Bilduk hirigintzari buruz egindako planteamenduak hondatzaileak iruditzen zaizkiola adierazi du Joseba Arregui jaunak, kontzeptuak eta epeak nahastu dituztelako eta ez dutelako proposamenik egin zortzi urtetan. Gainera, batzordea egin zenetik osoko bilkura egin den arte, talde batek proposamenari buruzko iritzia aldatu duela adierazi du. Proposamenak auzotarren behar zehatzetarako irtenbideak bilatu nahi ditu. GUKi jakinarazi dio oraindik plan orokorrari buruzko proposamenik ez duela aurkeztu. Gobernu-taldeak lantaldeek parte hartzeko irizpideak bildu ditu; hori ez ezik, Europako erakundeek parte hartzeko ezarritako irizpideak ere jaso ditu. Azkenik, Algortako erdiguneko arazoa konpontzea egun beharrezkoa dela adierazi du, eta hori ezin dela HAPOren berrikuspenera aldatu.

Joseba Arregui manifiesta que le parecen desoladores los planteamientos de GUK y EH Bildu sobre el urbanismo ya que mezclan conceptos, tiempos y no han planteado ninguna propuesta en estos ocho años. Indica que un grupo además ha cambiado de opinión sobre la propuesta desde la comisión hasta el Pleno. La propuesta busca soluciones a necesidades concretas de los vecinos. Indica a GUK que aún no le ha oído ninguna propuesta sobre la revisión del plan general. El equipo de gobierno recoge los criterios de participación de los lantaldes y no se limita a ello, sino que también recoge criterios de participación de instituciones europeas. Finaliza indicando que solucionar el problema del centro de Algorta es algo necesario hoy y que no se puede trasladar a la revisión del PGOU.

Arantza Gutiérrez andreak errepikatu du abstenituko direla eta, horrela, hasieran zuten jarrera aldatuko dutela. Gogora ekarri du aurreko legealdietara ezin izan direla aurkeztu eta, ondorioz, ezin dutela ez dagokien erantzukizunik hartu. Salbuespeneko abstentziorako arrazoiak berretsi ditu, oro har, berrikuspenetik kanpo konponbide partzialak ematearen aurkakoak direlako. Gobernu-taldeari dagokionez, ez du horiengan igarri HAPOren berrikuspenean aurrera egiteko inolako presarik, bere ustez,

Arantza Gutiérrez reitera que han manifestado que se iban a abstener modificando una posición inicial que era contraria. Recuerda que en las legislaturas anteriores no se han podido presentar por lo que no pueden asumir responsabilidades que no les corresponde. Insiste en las razones concretas por las que se van a abstener de manera excepcional, ya que como criterio general son contrarios a soluciones parciales fuera de la revisión. Manifiesta que no ve ninguna prisa por parte del equipo de gobierno

auzotarren zati handi batek proiektuen aurka dagoela dakitelako.

para avanzar en la revisión del PGOU y ello porque conocen la opinión contraria a sus proyectos de una parte muy importante de la vecindad.

Iñaki Gamero jauna pozik dago proposamenak aurrera egin duelako. Abstentzioak ez duela ezer desblokeatzen adierazi du eta busti egin behar dela, auzotarrak ulertzearekin ez dela nahikoa. Aitortu du aurreko osoko bilkuran elektoralista izatea ez leporatzeko eskatu zutela. Gainera, EH Bilduk hilabetean atzeratu zirela nabarmendu izana kritikatu du, horiek berrikuspena onetsi arte atzeratzea planteatu dutelako; hori epe luzeagoa da eta auzotarrei kalte egiten die. Izan ere, ez dira ausartzen horiei esatera urteak pasa beharko direla, bizi duten egoera larria dela eta.

Iñaki Gamero se congratula que la propuesta salga adelante y dice que la abstención no desbloquea nada y hay que mojarse y que no vale con decir que se comprende a los vecinos. Reconoce que pidieron através del Pleno anterior a este para que no se tachara de electoralista y critica que EH Bildu ponga el acento en un retraso de un mes cuando plantea que se retrase hasta aprobar la revisión, lo que es un plazo mucho mayor y con el prejuicio que ello supone para los vecinos a los que no se atreve a decir que tienen que esperar años, teniendo en cuenta la situación crítica en la que viven.

Santiago Sainz jaunak proposamenen atzean pertsonak daudela adierazi du, eta proposamen honekin alderdi berrientzat ia urtebete daramatela; bestalde, aditzera eman du alderdi popularrak ageri duen interesa aurrekoetan azaldu izan balu erabakia lehenago egin izango litzatekeela. Alderdi Popularra zoriondu du erabakitzeko poliketarako urratsa egin duelako eta interes alderdikoia pertsonen interesen aurrean jarri ez duelako.

Santiago Sainz manifiesta que detrás de las propuestas hay personas pero que con esta propuesta se lleva cerca de un año para los nuevos partidos y que si el interés que manifiesta el grupo popular fuera el que ha manifestado el acuedo habría llegado bastante antes. Felicita al Partido Popular porque se acerca a políticas de acuerdos y que no pongan por delante el interés partidista por el de las personas.

José Luis Landa jaunak jakinarazi du proposamen hau aurreko legealdi osoan zehar landu zutela, eta Alderdi Sozialistak jadanik proposamena babesten zuela gogorazi du, hiri-lurzoruan egingo delako jarduera, Etxebizitza Planean jasotakoaren arabera. Haren ustez, beren jarduera justifikatzeko gobernu-taldea babestu ezin zutela adieraztean, oposizioko alderdiek modu nahiko arduragabean

José Luis Landa manifiesta que el tratamiento de esta propuesta se prolongó durante toda la legislatura anterior y recuerda que el Partido Socialista apoyaba esta propuesta ya que se trata de una intervención en suelo urbano conforme a lo recogido en el Plan de Vivienda. Cree que los grupos de la oposición se han portado de manera bastante irresponsable justificando su actuación en que no

jardun dute. Jarduera horrek ez dituela inola ere baldintzatuko HAPOren berrikuspena edo Lantalderen lana adierazi du.

podían apoyar al equipo de gobierno. Manifiesta que esta actuación no condiciona en absoluto la revisión del PGOU ni la labor del Lantalde.

Enrique Prada jaunak desadostasuna ageri du aldaketa guztiak egiteko moduarekin; izan ere, haren ustez, berrikuspen-prozedurari lotuta egon beharko lirateke, horrela, planteatu ahal izango zen gune horretan espazioak libre ustea, beste eremu batzuetako hirigintza-aprobetxamenduak itxiz, edo beste aukera batzuk. Gobernu-taldeak HAPO finkatu nahi duela eta berrikuspenean konfiantzarik ez duela uste du. Alderdi politikoek haien artean bulegoak itxita egiten dituzten erabakiak kritikatu ditu. Amaitzeko, GUKek Etxebizitza Planerako proposamenak egin zituela eta gobernu-taldeak iseka egin ziela adierazi du.

Enrique Prada replica que no están de acuerdo con la forma en la que se realizan todas estas modificaciones ya que debían de estar ligadas al proceso de revisión, donde se podrían plantear para zona liberar espacios, cerrando los aprovechamientos urbanísticos de otras zonas u otro tipo de posibilidades. Cree que el equipo de gobierno quiere consolidar el PGOU existente y no cree en la revisión. Critica que los acuerdos se realizan en despachos cerrados entre grupos políticos. Finaliza indicando que GUK planteó sus propuestas respecto al Plan de Vivienda y que el equipo de gobierno se mofó de las mismas.

Arantza Gutiérrez andreak gogoratu du aurreko legealdian PSE-EEren ordezkaria ez zetorrela bat aurkeztutako proposamenekin. Garai hartan, EH Bilduk HAPOren berrikuspenaren alde egingo zuela adierazi zuen. PPri pertsonak berdin zaizkiola egotzi dio, eta proposamena babestu egin duela gobernu-taldeak Gainza plazan aparkalekua eraikitzea onartu duelako, PPk hauteskundeetarako egindako proposamena, hain zuzen. PPk eta EAJk hirigintza-arloetarako antzeko plangintza-ideia dutela uste du, baina PPk hori kamuflatu behar duela oposizioan izateagatik. Haren ustez, berrikuspena bizkortzea bidezkoa da, eta justifikaziorik ez duen urtebeteko atzerapena kritikatu du.

Arantza Gutiérrez recuerda que la legislatura anterior el representante del PSE-EE no estaba de acuerdo con las propuestas que se realizaron. EH Bildu desde entonces ya indicó que apostaba por la revisión del PGOU. Al PP le indica que no le importan las personas sino que apoya la propuesta porque el equipo de gobierno ha asumido la construcción de un aparcamiento en la plaza de Gainza que era una propuesta electoral del PP. Cree que la idea de planificación del PP y del PNV en ámbitos urbanísticos son similares aunque el PP tenga que camuflarla por estar en la oposición. Estima que lo que procede es agilizar la revisión, criticando que se lleve un año de retraso sin ninguna justificación.

Joseba Arregui jaunak adierazi du aldizkako arazoak konpontzen dituen

Joseba Arregui insiste en que mezclar urbanismo que soluciona problemas

hirigintza eta hirien etorkizuna zehaztu behar duen hirigintza nahasteak agerian jartzen duela alor horiek nola kudeatu ez dela ezagutzen. Degradatutako eremuei dagokienez, ezin da plangintza orokorra ebatzi arte itxaron arazo zehatzak konpontzeko. Hirigintza-garapena osoko bilkurari dagokio eta ezin da abstentziorik egon, aldeko 13 boto behar dituelako.

puntuales y aquel urbanismo que debe definir el futuro de las ciudades es no conocer la gestión en estos ámbitos. No se puede esperar a solucionar problemas concretos en zonas degradadas a que se resuelva la planificación general. El desarrollo urbanístico es competencia del Pleno y no vale abstenerse ya que necesita 13 votos a favor.

Enrique Pradak aditzera eman du, GUKek ez bezala, gai teknikoak ebaztea ez dutela hain erraz onartzen. Gobernu-taldeak jakinarazi die ezin direla berrikuspenaren zain geratu gobernu-taldea bera berrikuspena atzeratzen ari denean. Bere ustez, osoko bilkuran aurkeztutako edozein planteamendu landu beharra dago, eta GUKek ikuspegi orokor baten alde egiten duela berretsi du, batzorde irekietan, eta ez bulego itxietan, eztabaidatzen du.

Enrique Prada indica que no encuentran, como GUK, facilidades para acceder a resolver cuestiones técnicas. El equipo de gobierno les indica que no pueden esperar a la revisión cuando es el propio equipo de gobierno el que está dilatando la revisión. Cree que en el Pleno debe tratarse cualquier planteamiento que se presente y se ratifica en que GUK apuesta por una perspectiva global y debate en comisión abierta y no en acuerdos de despachos.

Iñaki Gamero jaunak azpimarratu du Sarrikobason salbuespeneko aldaketa egiten hasteko erabakia lantzen ari direla, eta ez berrikuspen orokorra. Beraz, auzotarren beharrei erantzuteko eskatu du. Proposamenak Algortako gune garrantzitsua birsortuko duela eta auzotarren bizi-kalitatea duinduko duela uste du.

Iñaki Gamero insiste en que se trata del acuerdo de inicio de la modificación puntual en Sarrikobaso y no de la revisión general y pide que se atienda a las necesidades vecinales. Estima que la propuesta va a regenerar una zona importante de Algorta y va a dignificar la calidad de vida de los vecinos.

Proposamena bozkatu da eta emaitza hau izan da: aldeko 16 boto (EAJ, PP, PSE-EE), kontrako 4 (GUK), eta 5 abstentzio (EH Bildu, Ciudadanos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 16 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 4 votos en contra, GUK; 5 abstenciones, EH Bildu, Ciudadanos.

Ondorioz, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen eta Ondare eta Etxebizitzako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengo absolutoaz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, Medio Ambiente y Patrimonio y Vivienda, por mayoría absoluta se acordó:

LEHENENGOA.- Hasiera batean onetsiko da Getxoko Hiri Antolaketako Plan Orokorraren aldaketa puntuala, sarrera erregistroan 9.438/2015 zenbakia duena, Mª JESUS HERMOSO MENDEZ andreak eta beste batzuek proposatua, Sarrikobaso kaleko 7, 9, 11, 17 eta 19. zenbakietarako. Kontuan izan beharko dituzte Azpiegitura eta Zerbitzu Sailak adierazitako baldintzak (beraien berri emango da).

PRIMERO.- Aprobar, con carácter inicial, la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo que, bajo el número de registro de entrada 9.438/2.015, proponen Dña. Mª JESUS HERMOSO MENDEZ Y OTROS, para los nº 7, 9, 11, 17 y 19 de la calle Sarrikobaso, debiendo tener en cuenta las condiciones señaladas desde el Departamento de Infraestructura y Servicios, de las que se dará traslado.

Aldaketaren ondorioz, 56-"Katea" banaketa aldea mugatu da. Alde horretan egikaritze unitate bakarra definitu da, banaketa aldearekin bat datorrena, eta bi bloke diseinatu dira (haietako bat "A lur-zatia" deritzonaren gainean, 1.737,03 m2koa, etxebizitza kolektibo librerako eta lokal komertzialetarako erabiltzen dena, etxebizitzarako 3.158,01 m2ko eraikigarritasun geometrikoa daukana eta komertziorako 303,34 m2ko eraikigarritasun geometrikoa daukana, beheko solairuan; eta beste bat "B lur-zatiaren" gainean, 683,27 m2koa, araubide orokorreko udal etxebizitza kolektibo tasatura eta araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitza kolektibora bideratua, 2.105,34 m2ko eraikigarritasun geometrikoarekin). Hori guztia gorabehera, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 LEGEA indarrean sartzen denean, bertan ezarritako egoitzako esku hartze babestuen motak kontuan izan behar dira.

Como consecuencia de la modificación, se delimita el Area de Reparto nº 56-"Katea", en la que se define una Unidad de Ejecución única, coincidente con el Area de Reparto, y se diseñan dos bloques (uno sobre la denominada "parcela A", de 1.737,03 m2, destinado a vivienda colectiva libre y locales comerciales, con una edificabilidad geométrica de 3.158,01 m2 para vivienda y 303,34 m2 para comercio en planta baja, y otro sobre la "parcela B", de 683,27 m2, destinado a vivienda colectiva tasada municipal de régimen general y vivienda colectiva de protección oficial de régimen general, con una edificabilidad geométrica de 2.105,34 m2). Todo ello sin perjuicio de que, a la entrada en vigor LEY 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda, deba estarse a los tipos de intervenciones protegidas residenciales establecidos en la misma.

"Erabileren eta domeinuen erregimena" izeneko 11. zenbakidun planoan 6, 7 eta 8 zenbakiak dituzten eremuak sestran eta lurpean edota hegalkinean bata bestearen gainean dauden azalerak dira, eraikinak egiteko edota erabilera pribaturako eta domeinu publikorako dira, Lurzoruaren Legeko testu bategina

Las zonas identificadas con los números 6, 7 y 8 en el plano nº 11, denominado "Régimen de usos y dominios", representan superficies superpuestas en la rasante, el subsuelo y/o el vuelo, destinadas a la edificación o uso privado y al dominio público, en los términos del apartado 4º del Art. 17 del Real Decreto Legislativo 2/2008, de

onesten duen ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretu Legegileko 17. artikuluko 4. atalean adierazitako terminoetan. EAEko Lurralde Antolaketako Batzordearen txostenarekin erabaki beharko da desegitearen ondorioz ukitutako azalerak toki sistemen sareari dagozkion estandarren ondorioetarako kontuan izan ahal diren.

20 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Suelo, debiendo dilucidarse, con el informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, si las superficies afectadas por la disociación pueden computar a efectos de los estándares debidos a la red de sistemas locales.

Berariaz adierazten da hasierako onespena egiteko aurkeztu den agiriak berekin duela herritarrek parte hartzeko programa.

Se hace constar de forma expresa que el documento sometido a aprobación inicial incluye el correspondiente Programa de Participación Ciudadana

Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko 17. artikuluak aipatzen duen eragin akustikoaren azterketa egin beharko da eta azterketa hori Bizkaiko Garraio Partzuergora bidaliko da, dagokion txostenaren bidez balidatu dezan. Tramite horren ondorioz, oinarrizko aldaketak egonez gero onetsi nahi den agirian, Udal honek hasierako beste onespen bat adostuko du eta jendaurrean jarriko da berriro behin-behinean onetsi aurretik.

Deberá efectuarse el estudio de impacto acústico a que se refiere el artículo 37 del Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que será remitido al Consorcio de Transportes de Bizkaia para su validación mediante la emisión del correspondiente informe. Si de resultas de tal trámite, se produjeran modificaciones sustanciales en el documento objeto de aprobación, este Ayuntamiento acordará una nueva aprobación inicial y la apertura de un nuevo período de información pública previo a la aprobación provisional.

Aldaketa puntualeko dokumentuan finkatzen den etxebizitza kopurua gutxi gorabeherakoa baino ez da. Bestalde, dokumentu honetan jasotzen diren ibilgailuen aparkalekuaren gaiko aurreikuspenak, 123/2012 Dekretuaren hirigintzako estandarra betetzearen justifikazioari dagozkionak bazter utzita, orientaziozkoak baino ez direla ulertu behar da; izan ere, Hiri Antolaketako Plan Orokorrak gai honetan ematen dituen aurreikuspenak bete behar dira (haren Hirigintza Arauen 6.3.13 artikulua), etorkizunean

El número de viviendas que se fija en el documento de Modificación Puntual es meramente orientativo. Por su parte, las previsiones en materia de aparcamiento de vehículos que se recogen en el presente documento, dejando al margen las que se refiere a la justificación del cumplimiento del estándar urbanístico del Decreto 123/2012, también han de ser entendidas como meramente orientativas, pues habrá de estarse a las previsiones que sobre esta materia dicta el Plan General de Ordenación Urbana

egiten diren eraikuntza proiektuak aurkeztu eta gero egiaztatu beharrekoak. Hori guztia udal arkitektoaren txostenaren terminoetan (horren berri emango da).

(Art. 6.3.13 de sus Normas Urbanísticas), a verificar tras la presentación de los futuros proyectos de edificación. Todo ello en los términos del informe del Arquitecto Municipal, del que se dará traslado.

BIGARRENA.- Erabaki hau eta bere jatorrizko espedientea jendaurrean erakusteko nahitaezko tramitea beteko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta lurraldean gehien irakurtzen diren egunkarietako bitan argitaratuz, azken argitaralditik HILABETEKO epean.

SEGUNDO.- Someter el presente acuerdo, junto con el expediente del que dimana, al preceptivo trámite de información pública, por medio de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y en dos diarios de los de mayor difusión del territorio, por el plazo de UN MES a partir de la última publicación.

HIRUGARRENA.- Hasierako onespen erabakiaren akordioa jakinaraziko zaie sektorean eskumenak dituzten administrazio publikoei, jakin dezaten.

TERCERO.- Notificar el acuerdo de aprobación inicial, para su conocimiento e informe, a las administraciones públicas con competencias sectoriales.

LAUGARRENA.- Hau eta bere espedientea Getxoko Udal Plangintzako Aholku Batzordera bidaltzea, dagokion txostena egin dadin.

CUARTO.- Dar traslado del mismo, junto con su expediente, al Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del municipio de Getxo al objeto de que sea emitido el correspondiente informe.

BOSGARRENA.- Berariaz adierazten da EAEko lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 85.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, onespen erabaki honek esan nahi duela gehienez ere bi urteko epean aldaketaren xede den eremuan ez dela inolako onespenik, baimenik eta lizentziarik emango, aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintzako araudia aldatzea badakarte.

QUINTO.- Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo prevenido en el Art. 85.3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, que este acuerdo de aprobación determina la suspensión, por el plazo máximo de dos años, del otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en el ámbito objeto de la modificación en la medida en las que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente.

SEIGARRENA.- Berariaz adierazten da berriro partzelatzeari buruzko edukien inguruko erreferentziak gutxi

SEXTO.- Se hace constar de forma expresa que las referencias a contenidos propios de la reparcelación son

gorabeherakoak direla, eta kudeaketa prozesuan ezarriko liratekeela behin betiko.

meramente orientativas, a establecer definitivamente en el proceso de gestión.

ZAZPIGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari gaitasuna ematen zaio, erabaki hauek burutzeko eman beharreko ebazpen oro agintzeko.

SEPTIMO.- Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas resoluciones resulten precisas en orden a la ejecución de estos acuerdos.

**148.- AUKERAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN GAINEAN EBAZTEA: GETXOKO AZOKA-MERCADO DE GETXO S.A. (IFZ A95014569) DELAKOAK 688/2014 DEKRETUAREN AURKA SARTUTAKO ERREKURTSOA DA, ZEREN XEDATURIK FINKATU IZAN DUEN EGINDAKO INBERTSIOAREN ZENBATEKOA ETA KANONA, GETXOKO MERKATUAREN ADMINISTRAZIO-EMAKIDA LIZITATZEKO BALDINTZA-AGIRIETAN AGERI DIREN ZEHAZTAPENAK IKUSITAKOAN.**

**148.- ACUERDO REFERIDO AL RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN INTERPUESTO POR GETXOKO AZOKA- MERCADO DE GETXO S.A, (N.I.F. A-95014569 ) CONTRA EL DECRETO 688/2014, POR EL SE ACORDÓ FIJAR, A LA VISTA DE LAS PRECISIONES RECOGIDAS EN LOS PLIEGO QUE RIGEN LA LICITACIÓN DE LA CONCESIÓN ADMINISTRATIVA DEL MERCADO DE GETXO, LA INVERSIÓN REALIZADA Y EL CANON.**

Proposamena irakurri eta gero, 1999an Getxoko Azoka, SA enpresari merkatuaren emakida eman zitzaionetik gertatutakoaren berri eman du Inazio Uriarte jaunak. Emakidadunak aurkeztutako eskaerak partzialki onartuko direla adierazi du, horiek egindako inbertsio-obratzat onartutakoen zenbatekotik sortutako gabealdiari buruzkoak, hain zuzen. Azkenik, merkatuaren egungo egoera ez dela ona adierazi du eta, hori dela eta, emakidadunak zein udala etorkizunerako tokiak izan litezkeenak aztertzen ari direla.

Tras darse lectura a la propuesta, Inazio Uriarte explica lo acontecido con el mercado desde su concesión en 1999 a Getxoko Azoka, S.A. Manifiesta que se admiten parcialmente las peticiones de la concesionaria respecto al plazo de carencia que deriva del importe reconocido como obras de inversión realizada por los concesionarios. Finaliza indicando que la situación actual del mercado no es satisfactoria y que por ello, tanto por parte de los concesionarios, como del ayuntamiento se están estudiando posibles escenarios de futuro.

Ibon Rodríguez jaunak aditzera eman du proposamena argudio teknikoetan oinarritu dela. Hala ere, EH Bildu

Ibon Rodríguez manifiesta que la propuesta se basa en argumentos técnicos pero lo que preocupa a EH

Algortako merkatuaren etorkizunak kezkatzen du; izan ere, jarduera horrek tokiko produktuak, ekoizpen ekologikoa, lanpostuak eta instalazioak Algortan duen oroitzapen historikoa bultzatzen dituelako egiten dute horren alde. Merkatuaren etorkizuna udalak, erabiltzaileek, langileek eta abarrek erabaki behar dutela uste du, eta ezin direla ahaztu bere eragina eta sortzen dituen lanpostuak. Ez dituzte arrazoi teknikoak eztabaidatuko, nahiz eta beste irtenbide bat posible dela uste duten eta espedientean jaso diren zenbait gai gogoko ez dituzten. Ebazpena 1999an egindako proiektuaren ondorio da, horren bidez merkatua soilik emakidadunaren arriskupean utzi baitzen. Proposamenak ez ditu aurkeztutako zenbait inbertsio eta balorazio onartu, denak emakidadunek egin dituzten arren. Haren ustez, arazoak EAJk 1999an hartutako neurrien ondorioz sortu dira, eta, pertsonak aldatu badira ere, gaur egun, alderdi hori oraindik kudeaketaren arduradun da. Bere iritziz, eredu hori agortu egin da, eta emakidadunek zein udalak iritzi berekoak direla uste du. EH Bildu abstenituko da. Bere ustez, merkatuaren etorkizuna bermatzea eta erabaki honek, alderdi guztien parte-hartzearekin, horri hasiera ematea da garrantzizkoa.

Bildu es el futuro del mercado de Algorta, que es una actividad que apoyan para potenciar tanto el producto local, la producción ecológica, así como los puestos de trabajo y el recuerdo histórico que dicha instalación tiene en Algorta. Cree que el futuro del mercado debe ser acordado por el ayuntamiento, usuarios, trabajadores, etc., y que no hay que olvidar la incidencia que tiene y los puestos de trabajo que genera. No van a discutir las razones técnicas, aunque creen que podría caber otro tipo de solucion y que no les gustan determinadas cuestiones que se reflejan en el expediente. La razón de la resolución viene del proyecto formulado el año 1999 que suponía dejar el mercado a riesgo exclusivo del concesionario. En la propuesta no se admiten algunas inversiones y valoraciones presentadas pese a que han sido todas realizadas por los concesionarios. Estima que los problemas derivan de las medidas adoptadas por el PNV en el año 1999, partido que sigue siendo responsable de la gestión aunque no coincidan las personas. Opina que el modelo está agotado y cree que así lo ven tanto los cecesionarios como el propio ayuntamiento. EH Bildu se va a abstener y cree que lo importante es garantizar el futuro del mercado y que este acuerdo sea el inicio para ello con la participación de todos los grupos.

Eduardo Andrade jaunak proposamenak aho zapore txarra utzi diela adierazi du. Horren bidez, 2014. urteko dekretu baten aurkako errekurtsoa ebazten ari da. Dekretu horrek gabealdia eta emakidadunek egin beharreko inbertsio batzuk ezarri zituen, eta aurkeztutako proposamenak azken horiek hobetu ditu. Proposamena onartzen ez bada, emakidadunek aldez

Eduardo Andrade manifiesta que la propuesta les deja mal sabor de boca. Se está resolviendo un recurso contra un Decreto del año 2014 que estableció un periodo de carencia y asumir unas inversiones sobre las que la propuesta que se presenta mejora para los concesionarios. Reconoce que si no se aprueba la propuesta los concesionarios van a tener que pagar desde antes y

aurretik zenbateko handia ordaindu beharko dute, horregatik, PPk ez du proposamenaren aurka egingo. Merkatarien irizpideak balioetsi behar direla uste du, baina ez dute udal txostenen kontra egiteko informazio teknikorik. Gobernu-taldeak ez duela ulertzen uste dute, alderdiei proposamena aurkeztu dietenetik ez dutelako hori inola ere ez aldatu eta jarrera tekniko batekin tematu direlako. Abstenituko dira, beraz, proposamena ez bada onartzen okerrago izango delako merkatarientzat. Amaitzeko, proposamen honetan merkatuaren etorkizunerako ideiak faltan sumatu dituztela adierazi du.

más por lo que el PP no va a oponerse a la misma. Cree que deberían estimarse criterios de los comerciantes pero no disponen de información técnica para rebatir los informes municipales. Ven falta de comprensión por el equipo de gobierno ya que desde que han presentado la propuesta a los grupos no han modificado en absoluto la misma enrrocándose en una postura técnica. Se van a abstener porque si no sale la propuesta sería peor para los comerciantes. Finaliza manifestando que echan en falta que con esta propuesta no se aporte a la vez ideas sobre el futuro del mercado.

Iñaki Amorrortu jaunak adierazi du merkatuaren etorkizunak kezkatzen dituela eta ez dutela atsegin gai hori merkatariei nola aurkeztu zaien, presaz, alegia. Ez dute horren aurka bozkatuko merkatariei kalterik ez egiteko. Bide batez, espero du gobernu-taldeak haiekin lan egitea Algortako merkaturako bideragarritasun eta dinamizazio komertzial berria bilatzeko.

Iñaki Amorrortu indica que están preocupados por el futuro del mercado y no les gusta como se ha planteado, con prisas, esta cuestión a los comerciantes. No van a votar en contra para no perjudicar a los comerciantes y espera que el equipo de gobierno trabaje con ellos para buscar una nueva viabilidad y dinamización comercial del mercado de Algorta.

